

MARTIN ALDAYA OLASAGASATI, Garbitania Zero Zabor S.M. sozietateko administrazio kontseiluko idazkariak, honako hau

ZIURTATZEN DU

A) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak, 2019ko apirilaren 12an egindako bilkuran ondorengo ERABAKIA hartu zuela:

1.- Garbitania Zero Zabor S.M.k gaikako bilketa egiteko kabina baxudun kamioi baten hornidura kontratatzeke esleipena Envirorent XXI, S.L.ren alde erabakitzea.

Zehazki, besteen artean, honako akordioak erdietsi ziren aho batez:

Lehenengoa.- Garbitania Zero Zabor S.M.k kabina baxudun ibilgailu baten hornidura alokairu bidez Envirorent XXI S.L.ri esleitzea 3.660€/hileko salneurrian (BEZ kanpo).

Hirugarrena.- Garbitania Zero Zabor S.M.ko gerenteari ahalmena ematea, eskatutako dokumentazioa aurkezten denean kontratua gauzatu dezaten.

Horiek horrela, eta administrazio kontseiluak horrela erabakita kontratua esleitutzat ematen zen eta Envirorent XXI, S.L. enpresarekin 2019ko maiatzaren 20an datarekin kontratua sinatu zen.

B) Sinatutako kontratuan atxikitako plegu administratiboetako 4. puntuan honakoa jasotzen dela:

4.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren epea BI URTEKOA izango da. Prozedura honetan jasotzen den hornidurak hasiera kontratua sinatu eta hurrengo egunean izango du.

Kontratua beste BI URTEZ luzatu ahal izango da, Garbitania Zero Zabor S.M.-k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko bi alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), eta esleitua hornidura luzatzera behartuta legoke, SPKLren 29.2 xedatutakoari jarraiki. Kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, gehienez ere LAU (4) urtekoa izango da.

Garbitania Zero Zabor S.M. berak erabakitzen badu, bere ekimenez eta esleipendunak bere obligazioak bete ez dituelako, kontratua suntsiaraztea, esleipendunak hornidura ematen jarraitu beharko du, Garbitania Zero Zabor S.M.-k horri egoki irizten badio, horretarako deitutako lizitazio berria esleitu arte, edota, gehienez ere, sei hilabetez, kontratua suntsiaraztea erabaki denetik kontatzen hasita. Epe horretan, kontratuan ezarritako prezioak aplikatzen jarraituko dira.

C) Garbitania Zero Zabor S.M.ko Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 4an burutu bilkuran honakoak adostu zituela aho batez:

Lehenengoa.- Beste urte betez kontratuaren luzapena onartzea, iraungitze data berria 2022ko maiatzaren 20a izango delarik.

Bigarrena.- Dagokionean Envirorent XXI, S.L.ri jakinarazpena igortzea.

Eta horrela jasorik gera dadin eta dagozkion ondorioak ekar ditzan, jakinarazpen hau egin dut, lehendakariak ikusi eta ontzat hartu duena.



Hernanin, 2021eko martxoaren 4an

O.I

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA